

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia udaletan

Maiatzeko ale honetan atal berria sortu dugu. Hilean-hilean, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren udalez udaleko hedapenaz arituko gara, batik bat.

Aurrera baino lehen, gogora ekarri nahi dizuegu Eusko Legebiltzarrak 1999ko abenduaren 10ean berretsitako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia hizkuntzaren normalizazioa eskuratzen jarraitzeko plan estrategikoa dela, hizkuntza-politika egiten diharduten herri-aginginteen euren jarduna bideratzen lagunduko dien oinarritzko tresna; helburuak adostu, egitarauak egokitu, ebaluazio-irizpideak zehaztu, lehenetsiak finkatu eta herri-erakundeen arteko koordinazioa hobetzen eta euskalgintzan diharduten bestelako enpresa eta herri-elkartekiko harremana bideratzen lagunduko dien tresna hain zuzen.

EBPNtik abiatuta eta udalen errealitate eta beharretara hobeto egokitzeko, hamar eredu landu dira, udalerrietako biztanle eta elebidun kopurua kontuan izanik.

2002ko otsailaz geroztik, bestalde, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, lurralde bakoitzeko Foru Aldundiak eta EBPN garatu nahi dutela adierazi duten udalek lanean dihardute, hilabete batzuetan udal bakoitzak bere Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia izan dezan.

Horretara iristeko lan-moduak lau urrats nagusi ditu:

- maila politikoko bilera udalean EBPN garatzeko goreneko konpromisoa lotzeari begira;

- maila teknikoko bilera, udaleko EBPNren edukia eta horretarako giza eta diru-beharrak proposatzeko;

- gizarte-ekimenarekiko osagarritasun-aldia, proposamena erakutsi eta ekarpenak jasotzeko, eta

- maila politikoko azken bilera, udalaren EBPN osatu eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren, Foru Aldundiaren eta Udalaren arteko hitzarmena adostu eta finkatzeko.

Hainbat udalek, hortaz, hiruzpalau urterako plan estrategikoa prestatzen dihardute. Besteak beste, Azpeitia, Arrigorriaga, Basauri, Beasain, Bergara, Eibar, Elgoibar, Galdakao, Getxo, Lasarte, Mungia, Orio eta Urnietak egin dute dagoeneko maila politikoko lehen batzarra, bai eta teknikarien arteko bileretako lehena ere.



EUSKALDUNON EGUNKARIA

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16
e-posta: I-Sosoaga@ej-gv.es

Euskara

Castellano

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

kodea:Lurraldea:.....

Tel.:

e-posta:



Jenny Randerson, Galesko Gobernuko Kultura, Kirol eta Hizkuntza ministroa "Populazioaren %18,5 mintzo da galesez eta gure lehen helburua hiztunen beherakada galaraztea da"



ZALDI ERO

Galesko Gobernuko Kultura, Kirol eta Hizkuntza ministroa da Jenny Randerson eta Hizkuntza Politikarako Batzordeko buru Rhodri Williams. Biek in hitz egin du Berripapera-k apirillean Euskal Herrira egin duten bisita baliatuz.

Berripapera: Zertan da hizkuntza politika Galesen?

Jenny Randerson: Gure hizkuntza politikaren oinarria Galesaren Legea da. Haren ondorio da Hizkuntza Politikarako Batzordea, gobernuaren mendeko baina burujabe aldi berean. Gobernuak asmoak izendatzen ditu eta Batzordeak haiek betetzeko plangintzak zehazten. Bestalde, Batzordeak Galesaren Legea bete dadin lan egin behar du, gure legeak halaxe agintzen dio eta. Galesko Gobernuak erabateko autonomia du hizkuntza arloan. Ez dugu zergak biltzeko esku-duntzarik, baina hizkuntza kontuan ahalmen guztiak ditugu.

B.: Noizkoa da Galesaren Legea?

Rhodri Williams: 1993an onartu zen legea. Aurretik ere bazegoen lege bat, 1967koa, baina ez zuen ezertarako balio. Gehienez ere, jendeari epaitegietan erabiltzeko eskubidea ematen zion. Osterantzean, ezer ez. Horregatik, benetan, 1993koak balio du.

B.: Zein dituzue hizkuntza politikaren lehentasunak Galesen?

J.R.: Egun, populazioaren %18,5 galesez mintzo da. Gure lehen helburua hiztunen beherakada galaraztea da. Nahiko lan dugu, herrialdea bitan banaturik dago eta: mendebaldean bizi diren gehienek galesez jakin arren, hiztunen

kopurua beheraka ari da. Hori irauli behar dugu. Ekialdean, aldiz, askoz jende gehiago bizi da, eta gales hiztunen ehunkoa txikiagoa izan arren, denera mendebaldean baino jende gehiagok hitz egiten du galesez. Arrakasta handiagoa izan dugu ekialdean, galesez hitz egiten duen jendearen kopuruak gora egin du eta, irakaskuntzarengatik batez ere.

B.: Zertan da hizkuntzaren ondorengotzatzea zuen herrian?

R. W.: Proiektu batzuk abiarazi ditugu, hego-mendebaldean batik bat, gurasoek haurrak gales-eskoletara bidal ditzaten eta, are garrantzitsuagoa, haurrei galesez hitz egin diezaieten bultzatzeko. Hezkuntza arloan ez ezik, osasungintzan ere saiatu gara, haurdun dauden emakumeek hizkuntzaren transmisioa ere gogoan har dezaten. Arrakasta izan genuela ematen du. Gobernuak ere diru gehiago eman digu bide horretan are gehiago saiatzeko.

B.: Hedabideek laguntzen dute galesaren indartzen?

J.R.: Tira, telebista katea eta irratia, biak ditugu galesez, baina guk ez dugu zuek hemen duzuen lehentasuna, hedabideei dagokienez, alegia. Zenbait aldizkari baditugu, baina euskarazko egunkariaren inbidia dugu.

R.W.: Irratia egun osoz ari da, esaterako, 19 orduz egunean, jai eta aste. Telebista, egunean bospasei orduz ari da galesez. Telebista katea digitala, berriz, hamar-hamabi orduz ari da.

B.: Zein balio du galesez hitz egiteak komunitatean?

J.R.: Lan bila dabilenak galesez hitz egiten baldin badaki balio erantsia du. Baina zuek ez bezala, guk ez dugu normalizazio legerik administrazioan, osasungintzan eta bestetan. Jakina, zenbait lanetan asko balio du galesez hitz egiten jakiteak. Gure helburua da profesionalak galesez ikastera bultzatzea, medikuak adibidez, erizainekin ere hitz egiteko. Ongi landurik dugu galesaren irakaskuntza lehen eta bigarren hezkuntzan, baina asko dugu egiteko unibertsitatean eta eskolaz kanpoko irakaskuntzan.

R.W.: Arrakasta izan dugu gurasoek haurrak eskola elebidunetara bidal ditzaten egin dugun kanpainan. Gurasoek argi ikusi dute galesak balioa duela. Lehen, gurasoek uste zuten ingelesak besterik ez zuela balio munduan. Ez zegoen hura beste hizkuntzarik lan ona lortzeko. Orain ez, ez da bata ala bestea, bata eta bestea baizik, bi hizkuntzak. Galesak balio duela sinesten dute.

B.: Galesera doan bisitariak ikusiko du badela ingelesez besteko hizkuntzarik?

J.R.: Futbol zelaietan elebitan egingo dituzte adierazpenak, bide-seinaleak, zenbait denda, banku... Ez Cardiff-en, arrunt ingelestua dago eta, baina jende gehiago entzungo duzu galesez hitz egiten Cardiff-en bertan, kalean, duela hamar urte baino. Zuzen ari gara, dudarik gabe.




ZALDI ERO




Jenny Randerson, Galesko Gobernuko Kultura, Kirol eta Hizkuntza ministroa



PERTSONAJEA:
Pablo Zubiarrain



LABURRAK:
Maiatz aldizkariak 20 urte



Eusko Jaurlaritza Expolinguan eta Linguapaxen



AGENDA
XXI. Uda Ikastaroak, XIV. Europar Ikastaroak



Korrika-AEK beka deialdia



Bizkaie.biz bizkaieraz Interneten




EBPN udaletan

laburrak

Maiatz aldizkariak 20 urte

Hogei urte bete ditu *Maiatz* literatura aldizkariak. 1981eko maiatzaren 10ean, Luzien Etxezaharretak eta Itxaro Bordak Iparraldeko idazleen plaza izango zen aldizkaria abiarazteko ardura hartu zuten eta bederatzita hilabete geroago, 1982ko otsailean, argia ikusi zuen lehen aleak. Harrezkero 35 zenbaki eta 45 liburu kaleratu ditu *Maiatz*-ek, espazioa eskaini die Iparraldeko idazleei eta euskara berritzeko lanean jardun du. Ibilbidea ospatzeko asmoz, "besta literarioa" agindu dute aldizkariaren arduradunek ekainerako.



Eusko Jaurlaritza Expolinguan eta Linguapaxen

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza Madrileko Expolinguan izan zen, apirilaren 11tik 14ra, euskara eta euskal kultura ezagutarazten eta gure hizkuntza ikasteko teknologia aurrerapenak zertan diren erakusten. Hil berean, 16tik 19ra, Bartzelonan izan zen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Linguapaxen, hizkuntza politikei buruzko munduko kongresuan. Sailburuordetzaz gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Saila, Kontseilua eta Hizkuntz Eskubideen Behatokia ere bertan izan ziren.



agenda

XXI. Uda Ikastaroak, XIV. Europar Ikastaroak

Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako eta Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak lagundutako, Uda Ikastaroak izango dira aurten ere. Ekainean hasi eta irailan amaituko dira eta hainbat ikastaro, mintegi eta jardunaldi burutuko dira; tartean, bigarren hizkuntzen irakaskuntzari dagokien ikastaroa, euskal gramatikari buruzko lan saioak eta "Koldo Mitxelena eta euskalaritzaren garapena azken mende erdian" izeneko jardunaldiak izango dira. Argibideak, ikastaroen idazkaritzan, Miramar jauregian bertan edo Interneten: www.sc.ehu.es/cursosverano.

pertsonajea

Pablo Zubiarrain

Txirritaren eskolako azken bertsolaria



Pablo Zubiarrain, Paulo Txikia edo Ernani Txikia, Txirritaren eskolakoan artean bizirik irauten zuen azken bertsolaria apirilaren 4an hil zen, Hernaniko zaharren egoitzan, 90 urte zituela.

Pablo Zubiarrain Hernaniko Ereñotzu auzoko *Telleria* baserrian jaio zen 1912an. Gaztetan artzain jardun zuen bertako Adarra mendian. Hamalau urte zituela, berriz, fabrikari hasi zen, baldosak egiten. Handik Astigarragara jo zuen, oinetako denda ireki baitzuen bertan. Hernanin egin zen bertsolari Paulo Txikia eta sagardotegiak izan zituen eskola. Txirritaren ezpal berekoa izan zen, Hernani, Urnieta, Astigarraga eta inguruko sagardotegietan zaildutako bertsolaria.

Joxe Joakin Mitxelena, Uztapide, Basarri, Txapel, Zepai eta beste hainbatekin kantatu izan zuen, bai eta Txirritarekin ere.

Horretan, gerra aurrekoan eta ostekoan artean zubilanak egin zituen eta, hil arte, garai bateko bertsolarien eredu izan zen: doinu klasikoak, kantuan gorabehera gutxi, gogoan hartzeko moduko bertso errazak, logikoak eta biluziak.

Aspaldi utzi zion plazan kantatzeari baina beti jardun zuen nola-hala bertsotan. 1985ean *la kantuz bezala* argitaratu zuen eta 1988an, *Gazi-gozoek*, Auspoa sailleko liburuak biak.

Hainbat omenaldi jaso zuen bizirik zela eta, handiena, 1981eko Bertsolari Eguna-ren karietara Donostian jaso zuena. Egun hartan Balendin Enbeita, Xanpun, Uztapide, Egileor eta Lizaso izan zituen ondoan.

Joan den azaroan elkarrizketa egin zion *Argia* aldizkariak eta bertan, Paulok hamalau urte zituela Txirritari bertsoa kantatu zioneko pasadizo polita berritu zuen. "Lehengusua eta biak eskaileretatik gora igo, eta han ari ginen 'bota behar zioagu' eta 'bota behar zioagu'. Eskaileretatik bota nion bertsoa eta alde korrika!" Handik pixka batera hasi zen kantuan Txirritarekin, plazaz plaza.

Paulo Txikiarekin kantatu zuten artean, azkenetakoa, Joxe Lizaso dugu. Honek adierazi duenez, "Paulo Txikiak ez zuen guk askotan egiten dugun bezala edozer gauza botatzen; hura bertsotara joaten zenean bertsotan egiten zuen".

Aspaldi konturatu zen jendea Pablo Zubiarrainek zenbat balio zuen. Adibide dira azkenaldian egin zitzaizkion elkarrizketa gozoek, dela *Bertsolari* eta *Argia* aldizkarietan, *Euskaldunon Egunkaria*-n, ETB-1eko *Esanak Esan* programan edo *Eta hitza jolas bihurtu zen* Euskadi Irratiko saioan.



Korrika-AEK beka deialdia

Korrika Kulturean ikuskizun berria plazaratzea da helburu

A EK Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak "Korrika-AEK" izeneko bekaren deia egin du hurrengo urteko Korrika Kulturean ikuskizun berria, euskal kulturatik sorturikoa, plazaratzeko asmoz.

Koordinakundeak antolatzen duen ekitaldi nagusia da Korrika eta azken edizioetan berealdiko indarra hartu du kultur sustapenak. Azken Korrikan, esaterako, behin ere baino indar handiagoa izan zuten ikuskizun horietarik batzuk lehen mailakoak izan ziren, kalitatezkoak eta arrakastatsuak: Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin eta Josu Eizagirreraren "Bar Puerto. Bazterreko ahotsak", "Komeriaka" antzerki emanaldia edo Koldo Izagirrek asmatutako bertsoaritzaren omenezko "Hitzak egin gaitu" saioa biribil-biribilak izan ziren, eta gogoangarriak. Horien harian sortu da lehenengo beka hau, 2003an egingo den Korrika 13 buruan harturik. Korrikaren hurrengo aldiaren ibilbidea zehazturik ez badago ere, antolatzaileek aurreratu dituzte hasiera eta amaierako toki eta egunak: Zuberoan hasiko da apirilaren 4an, eta Iruñean bukatuko hil bereko 13an.

Beka jasotzeko, eszenatoki baten gainean egin litekeen ekitaldi baten proiektua aurkeztu beharko da: bertsoaritzak, antzerkia, musika, literatura, dantza, zinema, bideoa... Euskaraz

sorturiko egitasmoa izan beharko du eta berariaz asmatutikoa.

9.000 eurokoa da bekaren zenbatekoa, hau da, ikuskizun saritua ekoitzi ahal izateko diru kopurua. AEK-k bestalde, 5.000 euroko laguntza ziurtatuko dio bekadunari emanaldi bakoitzeko, hau da, 50.000 euro, ikuskizunaren hamar emanaldi aurreikusitako baitutuzte 2003ko otsailetik apirilera.

Proiektuak 2002ko ekainaren 1etik 8ra aurkeztu behar dira, AEK-k hiriburuetan dituen egoitzetako batean. Erabakia, berriz, uztailaren 26an jakinaraziko dute.



Bizkaie.biz bizkaieraz Interneten

Mendebaldeko euskara eta teknologia berriak uztartu dituen aldizkaria

Bilboko Bizikai Kultur Alkartek bizkaiera zabaltzea helburu duen aldizkaria jarri du sarean, www.bizkaie.biz helbidean. Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko Zuzendaritzaren eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren laguntzaz egingo da eta euskara bultzatzea du helburu, bizkaieraren bidez.

Aldizkari elektronikoak hamalau atal ditu: *agenda, barriketan, beren beregi, kulturaren kritika, jo begiz, Bizkaian zehar, euskerea berbagai, jan-edanak, bidaide, bertsoan, euskaldunok munduan, antxina-bari, sarean eta irakurlearen txokoa.*

Bizikai Kultur Alkartearen arduradunek eta sareko aldizkariaren zuzendari Koldo Isusik, bizkaie.biz hamabostero berritzeko konpromisoa hartu dute erreportaje, elkarrizketa eta iritzi-artikuluei dagokienez. Agenda, berriz, egunero berrituko dute.